

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

zuzendariari@egunkaria.com



Martin Ugalde kultur parkea 20140 Andoain

Zer gehiago egin behar duzue?

Edume Lekuona • ERRENTERIA

Joan den egunetan, Kataluniako lagun bikote bat izan genuen gure etxean, opor egun batzuk igarotzera etorrita. Ez da etortzen diren lehen aldia, izugarri gustatzen omen zaie gure Euskal Herria. Oraingoan, ordea, oso kezkatuak topatu ditugu senarrak eta biok. Arrazoa? Azkenaldian beraiek hainbeste miresten duten Euskal Herri honetan den giro politiko eta sozial nahasia. Ez dituzte gustuko Madril aldetik herri honen aurka datozen erabakiak eta legeak; euskara akabatzeko bideratzen dituzten ahalegin eta nahiak; finean, zergatik ez ote diguten Autodeterminazio Eskubi-

dea errespetatzen, guk geuk erabaki dezagun benetan zer-nolako etorkizuna nahi dugun guretzat eta gure ondorengoentzat.

«Hau guztia ikusirik, zer gehiago egin behar duzue?», galdetzen ziguten behin eta berriz. «Europar ez dago herri hau bezalako gizarte kontzientziaturik, euskalduna bezalako herri mobilizatzaile baina... zer gehiago egin daiteke?», errepikatzen zuten. «Erantzun eta jarrera gogorra baina, era berean, denon parte hartzea erraztuko duena behar da. Pentsatu al da sektore guztiak elkartuko dituen greba edo planto modukorik egitea?», bota ziguten bat-batean. Lagun katalanak euren etxera itzuli ziren, baina aurreko astean jakin genuen euskal herritar talde batek gure lagunak planteatu

antzeko ekimenak bideratzeko hausnarketa proposatu diola euskal gizarteari. Gurekin kontatu dezakete, bai eta —noski— gure lagun katalanekin ere.

Ezpeletan desobedientzia zibilari buruz

Angel Portu

Lerro hauen bidez, nire zorionik beroenak eta eskerrak bidali nahi dizkizuet urriaren 12an desobedientzia zibilari buruz Ezpeletan egin zen mahai-inguruaren antolatzaileei, baita partaide guztiere ere.

Gaur egun ez da erraza EAJ, EA, Batasuna, Aralar, Batzarre, Zutik, ELA, LAB

etab. mahai-inguru batean edo bilera batean elkarrekin parte hartzen ikustea, nahiz eta inoiz baino beharrezkoagoa izan. Horregatik eskertzen dut zuen borondatea.

Interesgarria izan zen denon ikuspuntuak jakitea, eta, *salbuespen egoera* honi aurre egiteko, gehiagotan elkarrekin eseri, hitz egin, entzun eta eztabaidatu beharko dugun, hori baita bide bakarra.

Badakit ez dela erraza, baina erabil ditugun tresna demokratiko guztiak irtenbide bat behin betiko lor dezagun. Jokoa duguna gure herriaren geroa denez, denok jarri beharko dugun borondate *dezente* gehiago, ezta?

Dena den, zuei mila esker berriro ere, eta aurrera! Ezpeletakoa urrats bat izan zen.

montxo



galdeiozu... ?



NAROA AGIRRE

Pertika jauzilaria

Talde bateko kide guztiek (adibidez, pertikan zaudetenok) entrenamendu bera duzue? Eta mediku bera? Edo bakoitzak bere modura egiten ditu gauzak?

Alberto Gonzalez (Elgoibar)

Ez, noski! Entrenamenduak pertsonalizatua izan behar du; adina, bakoitzaren ezaugarriak eta maila atletikoak kontuan harturik, entrenamendu partikular bat egin behar da. Medikua alde garrantzitsua denez, atleta bakoitzak gустuren lan egingo duen medikua aukeratu behar du.

Urriaren 22tik aurrera **Mariano Ferrer** • **Kazetaria** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.

galdeiozu@egunkaria.com

hirusta



Fredi Paia

Esku ikusezina

Confesk-eko bozeramaileek azken egunetan egin adierazpenek 60ko hamarkadan Iker Gallastegi edo Jose Antonio Etxebarrieta bezalako ideologoak heldutako ondorioetara garamatzate. Euskal Herriaren (Nafarroa osoa) klase askapen nazionalen oligarka ekonomikoak ibaiaren beste aldean egongo zirela iragarri ziguten aspaldi. Lizarra Garaziko garaian ere, EAJren norabide aldatetan erantzukizun garrantzitsua izan zuten. Aitzitik, gizarte beldurtzeko gaitasuna ezin uka lekieke.

Kapitalismoaren hasierako faseetan, merkatu bateratuaren beharrak estatuen batasun politikoa ezinbestekoa zuen. Gutxiengo nazionalen ordaindu zituzten proiektu horren kostu sozial eta kulturalak. Egun, estatuen mugez gaindikoa ekonomia globalak, ordea, ez du egitura politiko horien beharrik. Erabaki ekonomikoak hartzen diren foroetan parte hartzeko espainiar

eta frantziar estatuen menpe egotea traba da guretzat.

Dena dela, nire helburua ez da beraien tesien kontrako argudioak plazaratzea (egin bezate ekonomian adituek), baizik eta langile euskaldunen esplotazio eta heriotzarekin poltsikoak betetzen dituztenak salatzea. Azken datuek adierazten duten bezala, hegoaldeko lau lurraldeetan behargin bat hiltzen da egunero *lan istripuz*. Gazteok ABLE, etxebizitza politika neoliberalen eta kontsumo eredu jasangaitzen harrapakin gara. Merkatu eredu honek aberastasuna kontzentratu baino ez du egiten, betikoen kalterako.

Hau gutxi balitz bezala, gure herriaren etorkizuna baldintzatu nahi dute, espainiar oligarkiak emandako botereari esker bizi direlako. (Nahiz gero BBVAko bezalako ostikadak jasotzen dituzten).

Jakin bezate, Adam Smith-en kide euskaldunek, herri honen duintasuna ez dagoela salgai.